



GUREAKeko LHko 2020-2022 promozioa:

**ENPRESEN KONPROMISOA BALIOAN JARRI DU GUREAKEK LHKO
DIPLOMAK BANATZEKO EKITALDIAN**

- Gaur arratsaldean Oinarrizko LHko hirugarren promozioiko 21 ikaslek jaso dute beren diploma.
- Inguruko 19 enpresen inplikazioari esker, ikasle guztiek praktika espezializatuak egin dituzte merkataritzan eta administrazioan.

Donostia, 2022ko urriaren 6a. Gaur arratsaldean jaso dute beren diploma GUREAKeko oinarrizko LHko 2020-2022 promozioiko 21 ikaslek. Ekitaldia euskal enpresataldearen Donostiako egoitza nagusian izan da, eta bertan izan dira GUREAKeko zuzendaritza-batzordeko ordezkariak, irakasleak, senideak, enpresa kolaboratzaileak eta GUREAKeko Oinarrizko Lanbide Heziketako Administrazio eta Merkataritzako espezialitateetako ikasleak.

Horrekin, dagoeneko hiru promozio graduatu dira desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako Lanbide Heziketan, pertsona guztientzako prestakuntza praktikoa eta irisgarria eskaintzeko espirituarekin sortu zen eredu.

Ainhoa Askasibarrek, GUREAK Itineraryko zuzendariak ireki du ekitaldia, eta gogorarazi duenez, "hasieratik egin genuen pertsona guztientzako lanbide-heziketaren aldeko apustua, eta lan-merkatuaren errealitateak hurbil kokatu nahi izan dugu". Askasibarrek balioa eman nahi izan die proiektuan sinetsi duten eta irakaskuntzaren etapa ezberdinetan era batera edo bestera lagundu duten enpresa guztiei. "Benetan pozten gaitu jakiteak gaur diploma jasotzen duzuen guztiek praktikak aukeratu duzuen espezialitatean erreferentzia den enpresa batean egiteko aukera izan duzuela". Itineraryko zuzendariaren hitzetan, **enpresen inplikazioa funtsezkoa da GUREAKen prestakuntza praktikoa eta indibidualizatu honetan, ikasitako guztia ingurune errealean praktikan jartzeko aukera ematen dutelako eta beldurrak kentzen eta laneko ohiturak finkatzen laguntzen dutelako.**

Inplikazio horren adibide da ekitaldian parte hartu duen Endanea enpresa, Hondarribin kokatua dagoen lorezaintza zentroa. Endaneak, **ilbilbide luzea du GUREAKekin lankidetzan, eta gaur egun desgaitasuna duten hiru pertsona ditu kontratatuta.**

Bestalde, Zigor Sagarduik, GUREAKEKO prestakuntza arloko arduradunak, azpimarratu du **prestakuntzak gizarteratzeko tresna gisa duen garrantzia. Iaz graduatu ziren 26 pertsonetatik 16k kontratu bat lortu dute, % 60k baino gehiagok.** Laneratze-ratio horiek berresten dute GUREAKEKO oinarritzko LH formakuntza benetako zubia dela desgaitasuna duten pertsonen laneratzean”, Sagarduik gaineratu duenez.

Ondoren, beren esperientzia kontatzera igo dira praktika-aldia amaitu bezain pronto beren ikasketekin zerikusia duten bi enpresatan, Primark eta Eroski, kontratua lortu duten bi ikasle. Amaitu aurretik, diplomak banatu dira eta, 2020-2022 promozio osoko argazkiaren ostean, lunch bat zerbitzatu da.

INFO+: GUREAKEKO PRENTSA KABINETEA

OLATZ MADARIAGA

655744945

olatz@horregatik.com